

Osasuna

JABIER AGIRRE

Bularra emateak minbiziari aurre hartzen laguntzen du

Amak umeari bularra emateak bularreko minbizia izateko arriskua gutxitzen omen du. Horregatik, amaren edoskitzeak osasun publikoko programa guztietan lehentasunezkoa izan beharko luke. Emakumeek bularra ematen hilabete gehiago egin-

Edozkitzea luzatuz, 50.000 bularreko minbizi kasu saihestu daitezke urtero

Auto-azterketarekin eta aldizkako

mamografiarekin prebentzio sekundarioa bultzatzen dugu, baina edoskitze naturalarekin prebentzio primarioaz ari gara, eta bide horretatik emakumeak parte hartze aktiboa izango du bere osasun arazo nagusietakoa den horri aurre hartzeko borrokan.

Familiaren ekonomian ere badu eragina

Ikerketak agerian utzi duenez, bularra emateak hainbat abantaila ekarriko lizkieke bai amari —osteoporosia, anemia eta obulutegiko minbizia prebenitzen omen ditu—, baita umeari ere: amaren eta haurraren arteko harreman estuak afektibitate aldetik haurtxoari dakarzkion onurez gain, jakina da amak defentsa mordoa transmititzen dizkiola umeari, eta modurik naturalenean gainera. Eta bada beste eragin bat, krisi ekonomikoa dela-eta kontuan hartzekoa dena. Duela gutxi, Espainiako Estatuan, urtero 120 milioi euro baino gehiago xahutzen omen ziren haurtxo-entzako biberioiak prestatzeko behar zen esnetan. Hilabete batzuetan edoskitzea luzatzeak ia ume guztiak biberoirik ez luketela hartuko esan nahi duenez, pentsa zer diru mordoa aurreztu daitekeen.



Izurrite bakterio erresistenteagoak?

Gaur egun, izurrite ospetsuak oso intzidentzia txikia du munduan, eta modu egokian tratatu daiteke antibiotikoekin, baldin eta tratamendua sintomak agertu eta denbora gutxira hasten bada. Orain, Weill Cornell medikuntza eskolako (AEB) ikerlariek izurrite-bakterioak oso erresistente bihurtu ditzakeen genea aurkitu dute. <http://ttiki.com/1566>

Tumoreek uste genuena baino zelula ama gehiago eduki dezakete

Nature aldizkariak dakar azalean: minbiziak orain arte uste baino zelula ama gehiago eduki litzake. Zientzialariek badakite tumore bakoitzean zelula amak daudela, alegia, beste gorputz batera eramanez gero tumorea berriz “pizteko” gai diren zelulak. Baina ikerketa batek orain arteko usteak hautsi ditu. <http://ttiki.com/1564>

Plazebo efektuarekin zerikusia daukan genea atzeman dute

Plazebo efektua esaten zaio pertsona batzuek benetako tratamendua jaso gabe sendatzeko duten gaitasunari, baldin eta tratamendu egokia jasotzen ari direla uste badute. Fenomeno hori azaldu lezakeen genea aurkitu dute Suedian egindako ikerketan. <http://ttiki.com/1565>

Unai Brea

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16